Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

779

EBAZPENA, 2009ko abenduaren 29koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horretan baimena ematen da 241.000 euro gehitzeko 12.084.150 euroko guztizko zenbatekoa bati, horrekin, 2009-2010 ikasturteari dagokionez, ondoko deialdirako onartutako beken emate-ebazpenak finantzatu ahal izateko. Delako deialdia: unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko bekenena, alegia. Orobat, ebazpen honen bidez, 12.084.150 euro murriztuko zaizkio 2010eko ekitaldirako dagoen zenbatekoari.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko ekainaren 23ko Aginduak, 2009-2010 ikasturtean unibertsitate ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beketarako dei egiten duenak (EHAA, 2009ko ekainaren 14koa), bere artikulu bakarraren 2. puntuan xedatzen du laguntzen zenbateko totala 21.662.433 eurokoa dela; horietatik, 12.084.150 euro erabiliko dira 2009ko ekitaldian onartutako emate-ebazpenak finantzatzeko eta gainerako 9.578.283 euroak 2010eko ekitaldian onartutako ebazpenetarako. Kopuru horiek, dena den, aldatu egin daitezke, bekak emateko proposamenen zenbatekoa kontuan izanik. Zirkunstantzia hori jendaurrean jakinarazi beharko da Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

Unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko beketarako deialdiaren ebazpenak berekin dakartzan behar ekonomikoak ikusita eta 2009ko ekainaren 23ko Aginduko artikulu bakarraren 2. puntua bete dadin, hau

EBATZI DUT:

2009-2010 ikasturtean unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko beken deialdiaren 2009ko ekitaldian onartzen diren beken emate-ebazpenak finantzatzeko dagoen 12.084.150 euroko zenbateko totalari 241.000 euro gehitzeko baimena ematea, eta kopuru bera murriztea 2010eko ekitaldirako dagoen zenbatekoari.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 29a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

779

RESOLUCIÓN de 29 de diciembre de 2009, de la Viceconsejera de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve autorizar un incremento de 241.000 euros al importe total de 12.084.150 euros destinados a la financiación de las resoluciones de concesión de becas adoptadas durante el ejercicio 2009 de la convocatoria de becas de carácter general para estudios universitarios y otros estudios superiores en el año académico 2009-2010 y disminuir en la misma cuantía en el año 2010.

La Orden de 23 de junio de 2009 (BOPV de 14 de julio de 2009), de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan becas de carácter general, para realizar estudios universitarios y otros estudios superiores en el curso académico 2009-2010 determina en su artículo único, punto 2, que el importe total de las ayudas asciende a 21.662.433 euros, de los que 12.084.150 euros se destinarán a la financiación de las resoluciones de concesión que se adopten durante el ejercicio 2009 y el resto de 9.578.283 euros se destinará a la financiación de las resoluciones que se adopten durante el ejercicio 2010, y que pueden ser modificadas teniendo en cuenta la cuantía que suponen las propuestas de concesión. Esta circunstancia será objeto de publicidad mediante Resolución de la Viceconsejera de Administración y Servicios.

Vistas las necesidades económicas que genera la resolución de la citada convocatoria de becas de carácter general para estudios universitarios y otros estudios superiores y en cumplimiento del mencionado artículo único, punto 2 de la Orden de 23 de junio de 2009.

RESUELVO:

Autorizar un incremento de 241.000 euros al importe total de 12.084.150 euros destinados a la financiación de las resoluciones de concesión de becas adoptadas durante el ejercicio 2009 de la convocatoria de becas de carácter general para estudios universitarios y otros estudios superiores en el año académico 2009-2010 y disminuir en la misma cuantía en el año 2010.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de diciembre de 2009.

La Viceconsejera de Administración y Servicios,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.